

Euskarazko ikus-entzunezko itzulpenaren historia: ETB-1erako itzulpen-egokipena eta bikoizketa.

JOSU BARAMBONES

Dagoeneko bi urte igaro dira Itzulpengintza eta Interpretazioko ikasketak burutzen dituzten ikasleei Ikus-entzunezko Itzulpena irakasteari ekin nionetik. Ordurako ETB-1ek hogeitau urte zeraman arren beste hizkuntza batzuetatik euskarara aldaturiko eta bikoizturiko programak emititzen, guztiarekin ere itzulpen mota honi buruzko ikerlanak urriak baino urriagoak ziren.

Hain zuzen ere, lanen urria batetik eta norberaren motibazioa bestetik akuilu eragingarriak gertatu dira lan honi heltzeko garaian. Lehenengoaz denaz bezainbatean esan behar da lan honen bidez erreferentzia-materiala eskaini nahi zaiela ikus-entzunezko itzulpenaren munduaren berri jakin nahi duten guztiei, eta inondik hastekotan orain arteko ibilbidea ezagutzetik abiatu behar dela begitandu zait egokiena; bigarrenari dagokionez, uste dut ikus-entzunezko itzulpenaren prozesua ezagutu ez ezik praktika zedarritzen duen testuinguruaren berri ere izan behar dugula orain

gauden egoerara nola eta nondik iritsi garen jakin nahi badugu.

Irakurlea ohartuko denez, ikerlana hainbat ataletan banaturik dago. Lehenengo ataletan euskarazko ikus-entzunezko itzulpenaren gainean egin diren lanen aipamena egiten da. Ondoren, ETB-1 sortu zenetik orain arteko ikus-entzunezko itzulpenaren historia zirriborratzen dugu. Labur bada ere, egoki iruditu zait aditzera ematea zein den pantailaratu arte ikus-entzunezko testu batek jarraitzen dituen urratsak, datu hori ezezaguna gertatuko baitzaio irakurle askori. Euskal telebistarako itzulpen-egokipenaren eta bikoizketaren jardura profesionalarekin loturiko datuak eskaintzen dira hurrenik, hala nola lanbide honek sorrarazten dituen gastuak edo bizibide honetan aritzen diren itzultzaile-egokitzailen kopurua. Amaitzeko, azken bost urteetako datu batzuk erakusten dira eta gaur egun ETB-1erako lan egiten duten bikoizketa-etxe nagusiei buruzko hainbat zertzelada azaltzen.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiet Edertrack-eko Jesus Eguzkitza, K-2000ko Josu Varela eta Irusoineko Iñaki Zubizarretari bakoitzaren bikoizketa-etxeko hainbat datu eskaini izanagatik.

Euskarazko ikus-entzunezko itzulpenaren gaineko ikerketa

Bakanak dira oso euskarazko ikus-entzunezko itzulpenari buruz azken hogeit urteetan mamitu diren ikerlanak. Desoreka nabarmena dago ikus-entzunezko itzulpenaz egin diren ikerlanen eta itzulpen mota honek gizartean betetzen duen funtzioaren artean. Badirudi ikus-entzunezko itzulpenak eta arlo honetako itzultzaileek ikusezin bihurtzea lortu dutela, itzulpenaz zein lanbidez inork gutxik hitz egiten eta are gutxiago teorizatzen ez duela kontuan hartuta. Espainian zein nazioartean orain dela hamar urte hasi bazen ere panorama aldatzen, gurean oraindik ia guztia eginkizun dago.

Egia da euskararen kasuan era honetako itzulpenak gizartean duen eragina, ikus-entzule kopuruari zein ikus-entzule gehienen adinari dagokienez, ez dela gaztelaniaren eremuan duenarekin berdingarria. Nolanahi ere, ETB-1 dugu Europako telebista-kate publikoetan haur programazio gehiena emittitzen duen katea eta haur programa gehienak itzulpenak izateak ezberrik gabe eragina izan behar du haurren hizkuntza eremuan. Horra hor, esaterako, ikertzea mereziko lukeen arloa, eta, gainerakoekin gertatzen den moduan, jorratu gabe dagoena oraindik ere.

Euskal telebistarako bikoizketaz eta azpitoluek idatzitako lehen artikulua (Etxebarria, 1994: 191-97) eta bai orain arteko bi azkenek ere (Barambones, 2005: 323-27

eta Zabalondo, 2005: 297-305) Euskal Herriko Unibertsitateko Ingeles eta Aleman Filologia eta Itzulpengintza eta Interpretazio Sailak duela hamar urtetik antolatuta izan duen "Trasvases culturales: literatura, cine, traducción" kongresuan ikusi dute argia.

Unzurrungak (1995: 321-25) euskara bezalako hizkuntza tradizioz gabe batean fikzioa bikoizteak berekin dakartzen zailtasunak laburbiltzen ditu *Pour la récupération de la langue de tous les basques* izeneko artikuluan. *Jakin* aldizkariak bere aldetik ale berezia eskaini zion 1997. urtean Euskal Herriko ikus-entzunezko industriari. Ale horretan Aranguren (1997: 65-70), Eguzkitzaren (1997: 71-77) eta Zubizarretaren (1997: 78-84) artikulua bana aurkitzen ditugu «Telebista eta bikoizketa» izenburupean. Larriaga (2000a eta 2000b) ETBko itzulpenaz eta azpitoluek bizi izan duten gorabeheraz mintzatzen zaigu sarean argitaraturiko bi artikulutan.

Aipagarria da, bestalde, Euskal Telebistako Euskara Sailak eta Edertrack, Irusoin eta K-2000 bikoizketa-estudioetako euskara arduradunek ikus-entzunezko testu bat euskarara itzuli eta bikoizteko erabiltzen dituzten hizkuntza irizpideak interneten argitaratu eman izana. Orain arte bost artikulua jarri dituzte sarean eta Azpeditiko Euskara Patronatuaren helbidean (<http://www.erabili.com>) daude irakurgai. Azpimarragarria da, baita ere, artikuluek duten izaera praktikoa, adibideak ikus-entzunezko benetako testuetatik atera baitituzte.

Orain arte aipatu artikuluez gain, konstante hartu beharrekoak dira Ibáñez Sernak (1993) bere doktore-tesian bikoizketari buruz jasotzen dituen datu eta iritzia. ETBko hizkuntza normalizazioaz, eta euskal tele-

bistak bikoizketarekin eta azpidazketarekin jarraitu izan duen politikaz iritzi kritikoa ezagutu nahi duen orori baitezpadakoa gertatuko zaio Cepedaren (1987) artikulua irakurtzea. Azkenik, Díez Urrestarazuk (2003) *ETB: el inicio de una nueva era* liburuan hainbat xehetasun eskaintzen dizkigu bikoizketaren historiaz.

Aipatu bibliografia-erreferentziaz gain, jarraian jasotzen ditugun argibideak ET-Brako lan egiten duten hiru bikoizketa-estudioetako arduradunekin eta itzultzaileekin izandako elkarrizketen ondorio dira.

Itzulpen-egokipenaren eta bikoizketaren historia

Euskarazko ikus-entzunezko itzulpena Euskal Telebistaren jaiotzarekin batera sortu zen, edo, zehatzak izatera, Euskal Telebista sortu baino bi urte lehenago, hain zuzen. Euskal Telebista abian jartzeko egitasmoari esker, lehenago existitzen ez zen azpiegitura bat arian-arian osatuz joango da. ETBren egitasmoa garatuz joan zen bitartean, ezerezetik *atera* behar izan ziren itzultzaile, ego-kitzaile eta bikoiztaileak.

Data jakin bat zehaztea zaila den arren, arakatu ditugun iturrietan oinarri harturik, 1980. urteko udazkenean koka daiteke euskarazko bikoizketaren sorrera, ETBk lehenbiziko transmisioa egin baino bi urte lehenago¹. Euskal telebistaren egitasmoa gauzatzen ari zenarekin batera beharrezkoa zen kanpoko programak euskaraz eman

ahal izateko egitura egokia eraikitzea. Kanpoko programen beharra justifikatzen duten arrazoiak orduan Kultura sailburua zen Ramon Labayenen adierazpen hauetan aurkitzen ditugu: “Surge [Irrati-Telebista-Eskola] por una razón muy sencilla: evidentemente, para hacer una televisión en euskera, las dificultades eran inmensas, *porque los gustos del público estaban ya adaptados a un mercado, un mercado que ofrecía muchas series y películas y, por tanto, el material doblado tenía que ser una parte importante en la programación de la televisión que queríamos hacer. Además era mucho más fácil empezar así.* Pero necesitábamos dobladores” (Díez Urrestarazu, 2004: 23. Letra etzana gurea da).

Bikoizketa lana eta, aurretik, ikus-entzunezko testuen itzulpen-egokipen lana eraz egiteko ez zegoen ez azpiegitararik ez aurretiko esperientziarik ikus-entzunezko itzulpenaren alorrean, ezta euskara adierazpiztatzen zuten zine industriarik ere. Beraz, ikus-entzunezko itzulpena eta bikoizketa alor jorratu gabeak ziren euskararentzat.

Tradiziorik ezari beste eragozpen bat gaineratu behar zitzaion: garai hartan oso gutxi ziren euskaraz egokiro lan egiteko gai ziren hedabideetako profesionalak. Arrazoi horiek guztiak direla eta, hutsetik hasi behar izan zen, dena *ex novo* sortu, eta euskaraz emitituko zuen telebista bat gauzatzeko egitasmoa aurrera aterako bazen, premiazkoa zen profesionalak prestatzea, hala itzul-

1. Euskal Telebistak bere lehenbiziko programa 1982ko abenduaren 31n eman zuen. Orduko lehendakariaren urteberriko mezuren ostean, “Rutas de Euskadi” dokumental, “Espaziozainak” marrazki bizidunek eta “Poxpolaok saltzen zituen neskatoa” telefilmak osatu zuten estreinako emisioa.

pen eta bikoizketa arloan nola alderdi teknikoetan.

Horiek horrela, 1980ko udazkenean Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak “Irrati-Telebista eskola” abiarazi zuen Donostiako Prim kalean. Xabier Mendiguren, Martuteneko Itzultzaile Eskolako zuzendaria izan zena, hizkuntz aholkulari eta itzulpen eskoletako arduraduna izan zen. Telebistan ari-tuko ziren eta telebistarako lan egingo zuten gainerako profesionalak prestatzeko Espainiako hedabide batzuetako profesionalengana ere jo zuten Kultura Saileko arduradunek, Díez Urrestarazuk aipatzen duen bezala (2004: 24):

Vinieron profesionales de varios estudios de doblaje de Barcelona y profesores de la universidad catalana para impartir un buen número de clases, porque allí se daban asignaturas no sólo de traducción y redacción, sino de dramatización, pronunciación y locución, para lo que la presencia de profesionales del doblaje y los medios como María Jesús Leonard de los estudios de doblaje «La voz de España» o Emili Prado, resultaba imprescindible [...].

Díez Urrestarazuk esaten digunez (2004: 25), bi kurtso mota zeuden: bata, lokuzioa eta jendaurreko aurkezpenak lantze-za zuzendua, eta bikoizketa prestatzera bestea. “Irrati-Telebista Eskola”ko egoitzan bertan bikoizketa estudio batzuk atondu omen ziren. Estudio horietan, hain zuzen ere, egin ziren euskarara bikoiztu ziren lehen filmak.

Larrinagak (2000a), ETBko Euskara Saileko egungo arduradunak, honela ikusten ditu hasiera une haiek:

En 1981 dio comienzo en la calle Prim de San Sebastián un curso enfocado en los aspectos lingüísticos y artísticos del trabajo en radio y televisión. Los futuros locutores de radio y televisión, presentadores y dobladores fueron instruidos durante año y medio por un amplio equipo que Iñaki Beobide había reunido. Xabier Mendiguren, director de la escuela de traductores de Martutene, se encargó de la instrucción lingüística. Xabier Elorriaga, actor y profesor universitario, dio clases de expresión corporal y dramatización. Xabier Lete, Iñaki Zubizarreta y otros profesionales de Radio Loyola y Radio Popular de San Sebastián, únicas emisoras en euskara de la época, se ocuparon de la formación en locución y dicción. Para la preparación y el adiestramiento en las técnicas del doblaje, se contó con dobladores madrileños y barcelones de prestigio, como Felipe Peña.

“Irrati-Telebista Eskola” sortu eta handik urtebetera, hau da, 1981ean, Kultura Sailaren barruko txosten baten arabera, lehenengo bikoiztaileak² prestatzen ziren, eta hori dela eta, urte bereko azarotik aurrera hasiko dira Euskal Telebistako programazioa aurrera ateratzeko beharrezkoak ziren lehenbiziko materialak prestatzen eta gordetzen.

Hasiera batean Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila arduratu zen ETB abian jartzeko derrigorrezkoak ziren ikus-entzunezko produktua nazioarteko merkatuetan erostez. Estreinako eresketa haiek ez ziren errazak izan eta traba eta eragozpen asko gainditu

2. Gehienetan “bikoizketa” eta “bikoiztaileak” aipatu ohi dira, “itzultzaile-egokiztaileak” alde batera utzita. Kontuan hartu behar dugu, halere, eta bakoitzari dagokiona kendu gabe, itzultzaile-egokiztaileen lana bikoiztaileena bezain garrantzitsua dela. Horregatik, itzultzaile-egokiztaileen lana ere aipatu ez ezik aldarrikatu ere egin behar dela uste dut.

behar izan omen zituzten, ikus-entzunezko merkatua telebista kate nazionalek –horien artean Espainiako telebistak– kontrolatzen zutelako. J. J. Azurza, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Hedabideetako zuzendari ohiaren esanetan, ETBri produktuak saltzez gerotan estatuetako telebista kate handiek produktu gehiago erosiko ez zieten beldur ziren saltzaileak. Oztopo gehienak Erresuma Batuko eta Estatu Batuetako enpresa banatzaileetatik zetozen, Espainiako ikus-entzunezko merkatuaren hornitzaile nagusiak baitziren. Horregatik, hasiera batean, ETBko Programa Zuzendariordetzako arduradunek Europako ekialde eta erdialdeko merkatuetara jo behar izan zuten, hor ez zegoelako telebista kate berri bati programak saltzeko halako erreparorik edo errezelarik; gainera, salneurriak askoz ere merkeagoak ziren. Ramon Labayenek honela ematen digu egoera horren berri (Díez Urrestarazu, 2004: 27):

Desde el principio tuvimos dificultades para comprar películas. No se nos vendía nada. Intentamos adquirir películas inglesas. Supongo que TVE presionaba sin duda en este sentido. Alguién logró comprar por fin en Milán unos dibujos animados búlgaros. Pienso que la gente de aquella época se acordará. No eran especialmente buenos, pero tenían la virtud de que nos los vendieron.

Euskal Telebistari ikus-entzunezko produktua saltzeko zeuden erreparoez oso ongi argitzen dute zergatik ETBk 1982an atzerrian erosi zituen 500 programazio-orduetatik erdiak baino gehiagok Bulgaria, Errumania eta Yugoslavia bezalako herrialdeetan jatorria izatea. Geroago, Kataluniako TV3 telebistarekin egindako hitzarmenari esker, “Dallas” bezalako telesailak erosi ahal izan zituzten eta BBC edo “Thames”

bezalako produkzio-etxeekin kontratuak egin.



Pasoliniren “Ebanjelioa Mateoren arabera” izan zen euskarara bikoiztuta emititu zen lehen filma. 1983ko martxoaren 31n, arratsaldeko 20:30etan, eman zuten Euskal Telebistak.

Ibáñez Sernak bere doktore-tesian jasotzen duenari jarraiki (1993: 131), Donostiako bikoizketa eskola izan zen Eusko Jaurlaritzak telebistan egiten zuen estreinako inbertsioa. Egile horrek ematen dituen datuen arabera, eskola horrek arlo guztietako hirurogeita hamarren bat ikasle prestatu zituen, eta horien artean, itzultzaileak, testu egokitzaileak eta bikoiztaileak.

Donostiako Irrati-Telebista Eskola hartatik hiru promozio atera bide ziren. Eskola barruan Filme Bikoiztuen Zerbitzua edo, beste iturri batzuen arabera, Filmen Bikoizketarako Zentroa (FIBIZE) sortu zen. Zerbitzu edo zentro horrek jatorrizko gidioen lehen itzulpen-egokipenak egin eta lehen filmak bikoiztu zituen. Nolanahi ere, hala

eskolaren nola bikoizketa zerbitzuaren bizi-tza ez zen oso luzea izan, bi-biak desagertuko baitziren euskal telebista publikoa jaino aitzin.

Euskal Telebista sortu aurreko itzulpen-egokipen eta bikoizketa prozesua honela laburbil dezakegu: Kultura Saileko arduradunek nazioarteko merkatuan erosten zituzten ikus-entzunezko produktuak; behin erosi gero, Filme Bikoiztuen Zerbitzura bidaltzen zituzten eta zerbitzu horrek Irrati-Telebista Eskolako itzultzaileen artean banatzen zituen. Jatorrizko gidioia itzultzen bukatzen zutenean, itzultzaileek egokipenaz arduratzen ziren pertsonen eskuetan uzten zuten itzultzaiko gidioia, itzulpena pantailaren beharretara egokitzearen. Gidoia egokitutakoan, FIBIZEko egoitzan bertan zegoen bikoizketa estudioa bidaltzen zen eta han dramatizazio lana egiten zen. Inon jasorik ez bada ere, pentsatzekoa da itzulpen-egokipen lanek zein bikoizketak Filmen Bikoizketarako Zentroak ezarritako kalitate-iragazkiren batetik igaro beharko zutela.

Hastapenetan Donostiako bikoizketa eskola eta ikasleak Eusko Jaurlaritzari lotuta egon ziren, baina Jaurlaritzako arduradunek enpresa pribatuaren ardurapean utzi nahi zuten telebistarako bikoizketa. Nahi edo asmo horren ondorioz, 1982ko uztailearen 2an Eresoinka sozietatea eratu zen. Egoitza Andoainen zuen eta hasieran 300.000 mila pezetako kapitalarekin osatu zen. Sozietatea sortu zuten artean honako hauek zeuden: Iñaki Anasagasti, haren anaia Joseba Anasagasti, Gorka Joseba Agirre, Juan Antonio Arcelay eta Iñaki Goiri Barron.

Larrinagak (2000a) aipatzen duenez, sorreran Eresoinka sozietatea bakarrik bikoizketaz arduratzen zen eta FIBIZEk gidioiak

itzultzen zituen Xabier Mendigurenen ardurapean. Halere, Eresoinka sortu eta berehala, FIBIZEren eskuetan zegoen material guztia enpresa berri horretara pasatu zen.

Kontuan hartu behar da 1982. urtean ETB sortu gabe zegoela artean ere, eta, beraz, prestatzen ari ziren material guztia erreserban gordetzeko zen. Era horretan, ETB emititzen hasten zenerako, emisioak bermatzeko behar beste material gorderik izango zuten Euskal Telebistako programazio arduradunek. Behin eta programa erreserba nahikoa sorturik zegoenean, bikoizketa beharrek programazioaren egiturari egokituko zitzaizkion.

Lehenbiziko fase horretan itzulpen eta egokipen lanak pertsona desberdinek egiten zituzten. Itzultzaileek sorburu hizkuntzatik euskarara aldatzen zituzten gidioiak eta soil-soilik edukiaren transferentzia egokiaz arduratzen ziren. Testua itzuli ondoren egokitzzaileen eskuetan uzten zen. Egokitzzaileak sinkronia arauak errespetatu eta testu ikus-entzunezkoak ahozko hizkeratik ahalik eta hurbilen egoten eta al bait komunikatiboen izaten saiatzen ziren.

Jardunbide horrek ez zuen denbora asko iraun, luze gabe lehen bi lagunek egiten zuten lana pertsona bakar batek egitera pasatu baitzen. Horrela, itzultzaile-egokitzzailearen figura gailendu zitzaizen itzultzailearenari eta egokitzzailearenari eta azkenean guztiz finaturik geratu zen Euskadiko bikoizketa estudioetan. Gaur egun, eta Valentzia edo Galizia bezalako autonomi erkidegoetan gertatzen denaz bestera, hemengo bikoizketa etxeetan pertsona beraren eskuetan dago ikus-entzunezko testuen itzulpen eta egokipena.

ETBko kanpo produkzioaren eskaerari, hau da, filmen, telesailen, marrazki bizidunen eta dokumentalen eskaerari, erantzun nahirik, beste bikoizketa enpresa bat sortuko da 1982ko maiatzean: “Galdakao Estudios”. Bikoizketa estudio berri hau Xoxoa disketxetik sortu zen. Xoxoa enpresak diskogintzan lan egiten zuen eta harrez gero ikus-entzunezko produktuen bikoizketa kudeatzeaz ere arduratuko zen.

Dramatizazio lana, hots, bikoizketa, Xoxoa produkzio-etxeko estudioetan egiten zen eta itzulpen-egokipen lana beren kasa ziharduten itzultzaileek burutzen zuten.

Bigarren bikoizketa etxea sortu eta itzultzaile-egokitzaila eta bikoiztaile talde profesional zabala eratzearen, Bilbon ere bikoizketa ikastaroak eman zituzten. Ibáñez Sernak (1993: 146) ematen dituen datuen arabera, Bilbon hogeita bi lagunek bukatu zuten ikastaroa. Bilboko taldeari Donostia-koa gehitzen badiogu, guztira berrogeita hamar bat laguneko taldea osatuko zuten has-tapenean ikus-entzunezko itzulpengintza eta bikoizketan jarduten zuten profesionalak. Guztiarekin ere, talde hori ez zen nahikoa Euskal Telebista bikoizketa arloan ziztuen beharrak asetzeko, guztien artean beharren % 50 baino ez baitzuten betetzen. Geroago profesional horiek lanean hasiko ziren Andoaingo eta Galdakaoko bikoizketa estudioetan.

EITBko Administrazio Kontseiluak ematen dituen datuetan oinarriturik, 1983ko martxoan, hau da, Euskal Telebista jaio zenetik hiru hilabetera, 100 bat profesionalak ziharduen lanean kanpoko programak euskarara aldatzen eta bikoizten, ETB-leko programa beharrei erantzuteko.

“Galdakao Estudios” enpresak izena aldatu zuen eta hortik “K2000 S.A.” bikoizketa enpresa sortu zen. Gaur egun K2000k Galdakaon du produkzio egoitza eta bikoizketan zein ikus-entzunezko produkzioan aritzen da.

1985. urtean zatiketa bat gertatu zen K2000 enpresaren barruan eta enpresarekin loturik egon ziren zenbait langilek beste bikoizketa enpresa bat sortu zuten: Edertrack, gaur egun Bilboko Sabino Arana kalean egoitza duena.

1986. urtean Eresoinka sozietatea bere jardueraren zati bat enpresa-talde bereko beste enpresa bati ematen hasi zen eta era horretan Irusoin bikoizketa etxea eratu zen.

Orain dela gutxi, 2004. urteko udan, Edertrack eta Irusoin bikoizketa etxeek bat egin zuten eta sozietate berria eratu zuten: “Mixer Producciones Audiovisuales S.L.”.

Bikoizketaren kalitatea

Lehenbiziko fase hartako itzulpen-egokipenaren eta bikoizketaren kalitatea aztertzen duen ikerlanik ez dagoenez, garai hartan ETB-1en edo ETB-1erako lan egin zuten profesionalen iritziak jaso nahi izan ditugu han-hemen argitaraturiko lanetan. Iritzi horiek kontrajarriak dira eta ikuspegi desberdinak transmititzen dituzte.

Iritziak iritzi, hasierako garai haietara itzultzen den orok aintzakotzat hartu behar du testu bat itzuli-egokitu eta bikoizteko prozesuan ziharduten guztiek, itzultzaileetatik hasi eta bikoizketako zuzendarietaraino, ez zutela ikus-entzunezko itzulpenean inolako eskarmenturik. Gainera, esperientzia gabeziari aurrekoa bezain edo are garrantzitsuagoa den beste faktore bat erantsi behar

diogu: euskarak ikus-entzunezkoetan eta hedabideetan zeukan tradizio falta. Unzurrunzagak honela deskribatzen dizkigu has-tapeneko garai hartan euskarak eta itzultzaileek gainditu behar zituzten oztopoak (1995: 324-5, letra etzana gurea da):

Les programmes provenant d'ailleurs, tous doublés en langue basque, ont moins d'audience parmi les adultes. C'est le grand défi que nos traducteurs et doubleurs ont aujourd'hui à relever face au public de la télévision basque. Les films du marché international sont ceux qui présentent le plus de difficultés. Il y a quatre ans, on a décidé de supprimer tous les sous-titres espagnols dans nos films, doublés désormais dès leur premier jour de projection en basque. On a ainsi sacrifié l'audience au profit de la normalisation de la langue, devant recréer en basque, *pour la première fois dans la longue histoire de notre langue, beaucoup de situations de fiction tout à fait nouvelles, étranges, étonnantes et bizarres pour nos téléspectateurs et leur parler. Il a fallu alors adapter la langue à cette nouvelle demande de la culture internationale, et en même temps adapter les récepteurs à écouter pour la première fois un Chinois, un Noir, un cow-boy, un militaire ou un policier parlant basque.*

Iritzi positibo edo baikorren artean Gizarte Hedabideetako sailburuorde ohi eta EITBko lehen zuzendari Josu Zubiaurrena aurkitzen dugu. Euskal Autonomi Erkidegoko Hedabide Publikoen Kontrol eta Jarrapenerako batzordearen aurrean 1982ko apirilaren 2an egindako agerraldian honelako balorazioa egin zuen:

La valoración es esperanzadora. La gente es capaz de aprender estas técnicas en poco tiempo. Hemos apreciado que el idioma utilizado en los doblajes es perfectamente apto y que el producto obtenido es de una calidad inicial perfectamente digna.

Era berean, Díez Urrestarazuk EITBko lehen zuzendariaren iritzi baikorregia jasotzen du: “Gracias a aquella infraestructura que creó el consejero Labayen, se pudo contar con material doblado cuando salimos al aire. Fue un trabajo muy profesional y que nos permitió emitir series perfectamente dobladas al euskera sin ningún tipo de complejo, porque se trataba de un trabajo hecho por profesionales, formados por profesionales” (2004: 23).

Gutziz kontrako iritzia agertzen du Cepedak, orduan Euskal Telebistako albistegi-etako erredaktoreak. Cepedak ETBk ezarri nahi zuen programazio ereduaren aurka egiten du eta itzulpenaren eta bikoizketaren gainean duen iritzia ematen du (1987: 16):

Pero en el caso de ETB se da un problema aún más grave (...). Se trata de que su programación depende en gran medida de productos extranjeros –telefilms, seriales, shows, etc. – que son doblados al euskara. Esto produce una distorsión aún mayor en el idioma, ya sea por la pésima calidad interpretativa de unos actores de doblaje poco experimentados y nada preparados; por la traducción mecánica y excesivamente literal de los guiones originales, que nada tienen que ver con la psicología y la mentalidad del euskaldun; o por la transmisión de modelos culturales y relacionales que son violentamente ajenos a la realidad cultural, vivencial, en que el euskara halla su caldo de cultivo natural.

Peio Aldazabalek, orduan Euskal Telebistako bikoizketa-koordinatzaileak, TeleDeian argitaraturiko elkarrizketa batean bikoizketaren kalitate-maila “onargarrizat bakarrik” jotzen zuen. Marrazki bizidunen arloan maila oso goian dagoela onartzen du baina genero dramatikoek dagokienez “oraindik aldapa asko igo behar direla” ai-

tortzen du. Horretaz gain, euskarazko bikoizketak gainditu behar dituen hainbat oztopo aipatzen ditu, hala nola ahots zoli eta bikoiztaile heldu eza eta “tan sólo cuatro años de rodaje, frente a cincuenta años de tradición que sitúan el doblaje español a la cabeza mundial” (1987: 17).

1987. urtean ETBk, Galiziako TVG telebistarekin batera, aipamen berezia jaso zuen “La gran noche del doblaje” ekitaldian “autonomi erkidegoetako telebistek programak beren hizkuntzetara bikoizteko egiten duten lan eskergatik” (Tele-Deia: 1987: 17).

ETBrako bikoizketa prozesua

Ikus-entzunezko testu bat pantailaratzen den arte jarraitu behar diren urratsak ezezagunak dira telebistaren edo zinema pantailaren aurrean esertzen diren pertsona gehienentzat. Horregatik uste dut, labur bada ere, gutxienez aipatu behar dela nola den gaur egun euskaraz emititzen den ikus-entzunezko testu baten itzulpen-egokipen eta bikoizketa prozesua³.

Lehenengo eta behin, telebista kateak eman nahi duen ikus-entzunezko produktuen emisio-eskubideak erosi behar dira. Gehienetan Euskal Telebistak FORTA federazioaren bidez erosten ditu programak emititzeko eskubideak⁴.

FORTAren barruan atzerriko programak erosteko autonomi erkidegoetako telebistetako ordezkariak osaturiko batzorde

bat dago. Bere eginkizunen artean zein programa erosi behar den eta produktuen hornitzaileekin zeinek negoziatu behar duen erabakitzea dago.

Erosteke kontratuak formalizatu direnean, emititzeko eskubideak telebista guztien artean ordaintzen dira erkidego bakoitzeko biztanle kopuruaren arabera.

Esan beharra dago emititzeko eskubideen lizentziak epe bat duela, hau da, erositako kanpo produkzioa bakarrik emititu ahal da denbora jakin baten barruan (gehienetan bi eta bost urte bitarteko epean), eta gainera produktuak ez du bi edo hiru emanaldi baino gehiago onartzen. Zenbaitetan, ordea, bost emanaldi ere onartzen dira eta beste zenbaitetan ez dago emanaldien kopuruan inolako mugarik. Adibide bat jartzearren, “First Wave” hogeitabi kapituluko telesailak 142.243 dolarrengatik erosi zioten Pearson TV Int. Ltd. produkzio-etxeari 1998. urtean. Telesaila emititzeko eskubideen lizentzia 2007. urtean amaitzen da, eta epe horretan ez dago mugarik emanaldien kopuruari dagokionez (Herri Kontuen Euskal Epaitegia, 2002: 24).

Behin programa baten emititzeko eskubideak erosi dituztenean, Euskal Telebista arduratzen da bikoizketa-etxei produktuak helarazteaz. Gero bikoizketa-etxe bakoitzak bere itzultzaile-egokitzaileei bidaliko die testua euskarara itzuli-egokitu dezaten.

Gaur egun –eta ia Euskal Telebista emititzen egon den denbora guztian– itzulpen

3. Argibide gehiago izan nahi duenak Beatriz Zabalondoren “Bikoizketa euskaraz” artikuluan datu gehiago topatuko du (Zabalondo, 2005: 297-305).

4. “Federación de Organismos de Radio y Televisión Autonómicas”. Espainiako autonomi erkidegoetako telebista publikoek sorturiko erakundea. Gaur egun zortzi telebista kate autonomikok osaturik dago.

zein bikoizketa zerbitzuak hiru bikoizketa-etxe ematen dituzte: Edertrack-ek, Irusoi-
nek eta K2000k. Euskal Telebistak hiru en-
presa horiekin negoziatzen omen ditu
bikoizketa tarifak. Ez dugu lortu jakiterik
enpresa horiek hautatzeko zein diren jarrai-
tzen diren irizpideak, ezta Euskal Telebistak
lana banatzeko erabiltzen dituen arauak
ere⁵.

Bikoizketa-etxe bakoitzak enpresaren-
tzat autonomo gisa lanean diharduen itzul-
tzaile-egokitzaille bati ematen dio testua
euskaratzeko agindua. Jatorrizko gidoiare-
kin batera bideo zintaren kopia bat ere ematen
dio⁶. Itzultzaileak testu ikus-entzunez-
koa itzuli ez ezik eraz egokitu ere egin behar
du, hau da, sinkronia fonetikoa errespetatuz
itzulitako testua aktoreen ezpain mugimen-
duetara moldatu behar du; sinkronia zineti-
koari erreparatuz aktoreen gorputz mugim-
enduekin bat datorren itzulpena eman
behar du; eta, azkenik, isokronia zainduko
du, hots, jatorrizko bertsioak eta itzulitako
bertsioak luze-laburrean denbora berdina
iraun beharko dute. Behin itzultzaileak uste
duenean itzuli eta egokitu duen testuak bi-
koiztu ahal izateko kalitate maila ona duela,
bikoizketa-etxeari emango dio.

Puntu horretara iritsi garelara, uste dut be-
harrezkoa dela jakitera ematea zenbat galba-
hetatik igaro behar duen ikus-entzunezko
testu batek ikus-entzuleek Euskal Telebistan
ikusten duten arte. Lehenik, itzultzaileak
bikoizketa-etxeari ematen dion testua bi-

koizketa-etxeko euskara arduradunak berri-
kusi eta, behar izatera, zuzendu egiten du.
Berrikusi ondoren, bikoizketa-etxeko eus-
kara arduradunak ETBko Euskara Sailari
igorriko dio itzuli-egokitutako testua. Hor-
taz, lehen fase horretan itzulitako gidoiare-
kin bakarrik lan egiten da, hurrengo fasera,
hau da, bikoizketa fasera, ez baita pasatuko
harik eta ETBko Euskara Sailaren oniritzia
jasotzen duen arte.

Asier Larrinagak, ETBko euskara ardu-
radunak, honela esplikatzen digu zein den
itzulitako gidoiak eta bikoizketak zuzentze-
ko ETBk erabiltzen duen prozesua (Larri-
naga, 2000a):

Una vez el texto en ETB, los lingüistas del De-
partamento de Euskara lo revisan y comprueban
todos los aspectos lingüísticos: cumplimiento de
las normas dadas por Euskaltzaindia, conformidad
con el estilo que ETB intenta mantener en sus
emisiones, idoneidad de las adaptaciones... Ade-
más, la traducción se coteja con el guión original y
con las imágenes.

Cuando se ha dado el visto bueno al texto en
euskera se reenvía al estudio para que realicen el
doblaje. Durante ese proceso es el director de sala
quien se responsabiliza de los reajustes necesarios.
Una vez doblado el producto se envía al Departa-
mento de Euskera, donde se visiona, para cercio-
rarse de que la calidad lingüística del producto es
la exigida y que los aspectos artísticos (sincronía,
dramatización) no se han descuidado.

Itzulpengintzako beste arlo batzuetan
gertatzen denaz bestera, non itzulitako pro-
duktuaren kalitatearen ardura ia bakarrik
itzultzaileari egotzi ahal baitzaio, ikus-en-

5. Kanpo produzioa esleitzeko 2004ko deialdian K2000 enpresa kanpoan geratu zen ETBko Erosketa Sailaren homologazioa lortu ez zuelako. Horrek esan nahi du ETBk datozen urteotan emititu behar duen kanpo produzioaren % 80 baino gehiago "Mixer" bikoizketa-etxeari emango zaiola.

6. Egun ere VHS formatoarekin lan egiten dute itzultzaile-egokitzailleek. Digitalizazioa urrun samar geratzen da oraindik ere.

tzunezko itzulpenaren azken emaitza ez da pertsona bakar baten erantzukizuna, baizik eta prozesuan parte hartzen duten profesional askorena. Ikus-entzunezko testu bat xede hizkuntzara egokitzeko prozesuan honako hauek dira esku hartzen duten profesionalak: itzultzaile-egokitzailak, zuzentzaileak, hizkuntzalariak, bikoiztaileak, bikoizketako zuzendariak eta soinu teknikariak. Horrela bada, guztiei, oro har, dagokie xede hizkuntzako azken produktua sorburu hizkuntzako produktuaren kalitate maila berdinekoa izatea.

Bikoizketari buruzko datu eta zenbaki batzuk

Dagoeneko esan dugunez, orain dela gutxi arte hiru enpresa izan dira Euskal Telebistari itzulpen eta bikoizketa zerbitzuak eskaini izan dizkietenak. Halere, 2004ko udan hiru horietatik bi enpresak, Edertrack-ek eta Irusoinek, bat egiten zuten eta bikoizketa-etxe berria eratu zuten: “Mixer Producciones Audiovisuales S.L.”.

Ez dago esan beharrik Euskal Telebista dela euskararekin lan egiten duten bikoizketa-etxeen babesle nagusia. Hurrengo orrialdeetan datozen grafikoek oso ongi islatzen dutenez, horrek berekin dakar enpresa horien dirusarrerak eta langileak kontratatzeke orduan egon daitezkeen gorabeherak Euskal Telebistako eskariaren mendean egotea hein handi batean.

Beste alde batetik, ikus-entzunezko enpresentzat lan egiten duten itzultzaile-egokitzailak eta bikoiztaileak ia guztiak langile autonomoak dira. Gaur egun Irusoinentzat⁷ lan egiten duten hamabi itzultzaile-egokitzailetatik guztiek beren kasa lan egiten dute. K2000n enpresak kontratatutako itzultzaile-egokitzailak eta bikoiztaileak bakarrik dago, Edertrack-en gertatzen den moduan.

Bikoizketari dagokionez, hiru bikoizketa-etxeek bikoiztaile finakoak dituzte eta horietaz gain beste bikoiztaile multzo bat bikoizketako beharren arabera kontratatzen dutena.


1982. urtearen amaieran, Euskal Telebistaren jaiotzarekin batera, euskarazko bikoizketaren *booma* dei dezakeguna hasten da. Oso denbora laburrean ezerezetik ehun bat itzultzaile-egokitzailak eta bikoiztaile izateraino pasatu zen. Era berean, lau urteko epean hiru bikoizketa-etxe sortu ziren. ETBrako itzulpen eta bikoizketa lanak egiten zituzten enpresek ETB sortu eta hurrengo hamar urteetan bizi izan zuten beren urrezko aroa. Kontuan hartzen baldin badugu lehenbiziko garai haietan ETBk emititzen zuen kanpo produkzioa programazio osoaren % 65eraino iritsi zela, kanpoko programak emititu ahal izateko eskubideak erosteagatik sorturiko gastuak eta itzulpen-egokipenak, programen azpidazketak⁸ eta bikoizketak sorturikoak oso handiak izan ziren.

Hurrengo grafikoak bikoizketak sorturiko gastuak agertzen ditu:

7. Ondorio praktikoengatik “Irusoin” eta “Edertrack” erabiltzen ditugu, duela urtebete biak batzearen ondorioz “Mixer” sortu bazen ere.

8. Kontuan hartu behar dugu ETBk gaztelaniazko azpiztituluak erabili izan zituela 1993. urtera arte. 1991. urtean haur eta gazte programetatik kendu zituzten eta 1993an gainerako programetatik (Etxebarria, 1994: 195).

I Grafikoa: Bikoizketa-gastuak (1983-90)




Iturria: Ibañez Serna (1993)

Lehen fase hau oso emankorra izan zen. Itzultzaile eta bikoiztaileen kopurua ikaragarri igo zen. Programazioaren diseinua programa entretenigarrietan oinarritzen zen eta ETBko barne programazioa txit urria izaki, programa horiek atzeritik ekarri behar ziren.

Hurrengo grafikoan agertzen da ETBko estreinako sei urteetan Irusoin bikoizketa-

etxerako lan egiten zuten itzultzaile-egokitzaitzaileen kopurua. Ikus daitekeenez, 1984. eta 1985. urteetan, eta neurri apalagoan 1986.ean, itzultzaile-egokitzaitzaileen eskaria oso handia da. Euskal Telebistak emititzen zituen kanpoko programen kopuru esker-gan bilatu behar da halako eskariaren arrazoia.

II Grafikoa: Irusoineko itzultzaile-egokitzaitzaileen kopurua (1983-88)



Iturria: Iñaki Zubizarreta (Irusoin), 2005

Nolanahi ere den, ezin ahaz daiteke Irusoinekin batera beste bi bikoizketa-etxe aritzen zirela lehian ikus-entzunezko merkatuan. Hortaz, pentsatu behar dugu itzul-tzaile-egokitzailen eskaria eta eskaintza merkatu horrek ezarritako legeek baldintzatu zituztela hein handi batean.

Euskarazko ikus-entzunezkoaren itzulpenaren krisialdia edo beheraldia 1993. urtean hasten da, ETBko arduradunek ordura arte jarraituriko programazioa aldatzearen ondorioz. Hartara, gero eta film eta telesail gutxiago bikoiztuko da, halako moduan non telesailak arian-arian desagertuz joango baitira Euskal Telebistatik⁹.


Marrazki bizidunen kasuan guztiz kontrako adibidea topatzen dugu. ETB-1ek garrantzi berezia eman izan die betidanik marrazki bizidunei. 1987. urtean, esaterako, Europako gainerako kate publikoekin aldeaturik, Euskal Telebistak haur programen kopururik handiena zuen: % 15,2, hain zuzen ere, “barne eta kanpo produkzioen artean” (Zabaleta, 1988: 14). 2004ko martxoaren 24tik urte bereko apirilaren 4ra

bitarteko kanpo programazioa aztertzen duen beste lan batean, haur programen kopurua –beti kanpo produkzioa aintzat harturik– % 53,84raino iristen da; filmen emanaldiak, berriz, kanpo produkzio osoaren % 5, 12raino bakarrik iristen da eta falta den kopurua, hots, % 41,02, dokumentalek betetzen dute (Barambones, 2005a: 324).

ETBk kanpo produkzioari –bereziki filmi eta telesailei baina ez marrazki bizidunei, haien emanaldiek gora egin baitzuten– eskaintako ordu kopurua murriztu zuen barne produkzioa indartzen zuenarekin batera. Kontuan hartu behar da ETBk ekoiztu zuen euskarazko lehen telekomedia edo *sit-coma*, “Hau da A.U.”, 1990ko azaroan emititu zela; “Goenkale”, berriz, 1994ko urrian hasi zen emititzen. Horren ondorioz, kanpo produkzioari eskaintako aurrekontuak gutxitu behar izan zituen ETBk eta barne produkzioa indartze aldera bikoizketa irten zen galduan.

Hurrengo grafikoa argi ikusten da euskarazko bikoizturiko filmen beheraldia (datuak bakarrik Irusoin enpresari dagozkie):


III Grafikoa: Bikoizturiko filmen kopurua (Irusoin)



9. 1983-1992 bitarteko kanpo produkzioa aztertzen duen lan batean, telesailek kanpo produkzioaren % 39 betetzen zuten (Barambones, 2005b: 70). Horregatik harrigarria da gaur egun eta azken urte hauetan ETBk telesailek batera ez ematea.

Hurrengo grafikoan, berriz, ordu-kopuru bikoiztuen beheraldi etengabea ikus daiteke. Datuak Irusoin bikoizketa-etxeari da-

gozkio eta 1983tik 1996ra bitarteko epea hartzen dute barruan.



Kanpo produkzioak nozitu zuen beheraldiaren ondorioz, bikoizketak sorraraziko gastuak ere asko murriztu ziren, ETBko 1998ko kanpo produkzioko gastuen kontu

honek erakusten duen bezala (kontuan hartu gastuak orokorrak direla eta ez dagozkio- la bikoizketa-etxe bakar bati):

I Taula:
Kanpo produkzioak sorturiko gastuak (1998. urtea)

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA (miloï pezetan)
Emisio eskubideak (filmenak eta programenak)	1.687
Euskarazko bikoizketa	314
Gaztelaniazko bikoizketa	97
Azpidazketa eta <i>soundtrack</i>	11
GUZTIRA	2.109

Iturria: Herri Kontuen Euskal Epaitegia, 2002, 23. or.

Kontuan hartzen baldin badugu 1990. urtean bikoizketak sorturiko gastuak 1.175 miloi pezeta izan zirela, 1998an euskarazko bikoizketan gastatu ziren 314 miloiek agerian uzten dute ETBk emitituriko kanpo produkzioaren jaitsiera nabarmena.

Azken bost urteotako itzulpen-egokipena eta bikoizketa

Atal honetan azken bost urteoi dagozki- en hainbat datu eskainiko ditugu. Horretar- rako, ibilbide laburra egingo dugu gaur egun ETBrako lan egiten duten hiru bikoiz- keta-estudioetan barna.

1. Irusoin

Irusoin izan zen Euskal Herrian ireki zen aurreneko bikoizketa-etxea. 1982. urteko uztailean sortu zen “Eresoinka” izenarekin. Geroxeago, 1986. urtean, izen soziala aldatu eta “Irusoin” izena jarri zioten. Hasi-era batean Andoainen zuen egoitza baina gero Donostiara aldatu ziren eta egun Donostian, Errotaburu auzoan, du egoitza. 2004ko udan Bilboko Edertrack enpresarekin bat egin eta “Mixer Producciones Audiovisuales S.L.” bikoizketa-etxe berria sortu zuten.

Hasiera batean bikoizketan bakarrik jarduten zuten, baina gaur egun telebista eta zinearen munduarekin lotutako hainbat alderdi lantzen dituzte. Eskaintzen dituen zerbitzuen artean honako hauek daude (<http://www.irusoin.com>):

- Animazio ekoizpena. Burutu dituzten animazio lanen artean telesail eta film hauek daude: “Karramarro uhartea”, “Ahmed, Alhambra printzea”, “Fernando Amezketarra” eta “Lazkao Txiki”.
- Telesail, film eta dokumentalen bikoizketa, soinu-jartze eta postprodukzioa.
- Bideo postprodukzioa. Egindako lanen artean honako hauek daude: “Frontón” programarako kareta eta “Otorduan, Karlos Argiñanorekin”.
- Aurreprodukzioa, produkzioa eta postprodukzioa (Euskaltel on line TB, “Bai Euskarari” ziurtagiriaren kanpainarako *spota*; 1999ko Gipuzkoako errentaren kanpainarako *spota*...)
- Irusoin bikoizketa-etxeak ekoizten du EITBrako ikus-entzunezko promozio

guztia, bai autonomia eremuko bi kanaletan eta bai Europa eta Ameriketarako satellite bidezkoetan ere. Arlo honetan burutu dituen lan batzuk: 2000ko liga, Euskadi Irradiaren promozio *spota* eta ETBko albistegiaren promozio *spota*.

- Digitalizazioa.
- Azpitoluak.

Bikoizketa arlori itzuliz eta enpresak berak eskaintako datuen arabera, 2000-2004 epe barruan Irusoinek batez beste 239 ordu bikoiztu izan ditu urtean ETBrako.

Irusoinentzat dozena bat itzultzaile-egokiztailek egiten du lan, eta denek beren kasa egin ere. Bikoizketako aktoreei dagokienez, enpresak lau bikoiztaile finko ditu. 2004. urtean hirurogeita hamabi bikoiztailek egin zuten lan, lau finkoek barne.

Azken bost urteetan Irusoinek euskarara itzuli-egokitu eta bikoiztu duen kanpo programazio guztiaren artean titulu hauek aipatuko ditugu:

- **Filmak:** *Abertzalea (The Patriot)*, Roland Emmerich, 2000), *Evelyn (Evelyn)*, Bruce Beresford, 2002), *George eta dragoia (George and the Dragon)*, Tom Reeve, 2004), *Harry Potter (Harry Potter and the Sorcerer's Stone)*, Chris Columbus, 2001), *Heroia halabeharrez (Hero)*, Stephen Frears, 1992), *Ikasle txoriburua (The Nutty Professor)*, Tom Shadyac, 1996), *Jainkoaren ertzak (Edges of the Lord)*, Yurek Bogayevicz, 2001), *Marea Gorria (Crimson Tide)*, Tony Scott, 1995), *Tipo jatorra (Local Hero)*, Bill Forsyth, 1983).
- **Marrazki bizidunak:** *Doraemon (Doraemon)*, Kôzô Kusuba y Tsutomu Shibaya-

ma, 1979), *Shin Chan* (*Kureyon Shin-Chan*, Yoshito Usui, 1992), *Hirukiak*, *Doug* (*Doug*, Jim Jinkis, 1991), *Pokemon* (*Pokémon*, 1998), *Heidi* (*Arupusu no shôjo Haiji*, Atsuji Hayakawa, 1974), *Tintin*, *X taldea*, *Stargate: Infinity* (Will Meugniot, 2002).

- **Dokumentalak:** *Basabizitza ikusgai*, *National Geographic*eko hainbat atal, *Ushuaia*, *Asia hezigaitza*, *Basabizitzaren iraupena*.

2. K2000

Telebista, zinema eta multimedia alorrean ikus-entzunezko produkzioan diharduen enpresa bat da K2000. Euskal Herrian sortu zen bigarren bikoizketa-etxea izan zen. Hasiera batean “Galdakao Estudios” zuen izena eta 1983. urtean jaio zen.

K2000 bikoizketa-etxeak Galdakaon du produkzio zentroa. Barne produkziarako hiru plato ditu eta kanpoko programak bikoizteko hainbat bikoizketa-gela ditu. Itzulpen-egokipen eta bikoizketa lanez gain, lokalizazioaren alorrean ere lan egiten du.

Duela urte batzuk hasita, barne produkzioa indartzeko ahaleginak egin ditu, hala telebistarako nola zinemarako. Barne produkzio horren emaitza dira, besteak beste, “Rusia polifacética”, “China: el dragón milenarior” edo *Sketches of the World* dokumentalak.

Euskal Telebistarako hainbat programa ekoiztu izan ditu: “Bertatik bertara” ETB-1erako eta “Lo que faltaba” eta “La gran evasión” ETB-2rako.

Azken sei urteetan, 2005.a ere barne, K2000 bikoizketa-etxeak ordu kopuru hau-ek bikoiztu ditu Euskal Telebistarako:

II Taula: K2000k bikoizturiko orduak

URTEA	ORDUAK
* 2000	160
* 2001	159,5
* 2002	162
* 2003	152
* 2004	70,5
* 2005 (maiatzera arte)	30

Itzultzaile-egokitzaille kopuruari dagokionez, K2000k itzultzaile-egokitzaille finko bat besterik ez du, gainera bikoiztailea ere dena. Beste itzultzaile-egokitzaille guzti-ek beren kasa lan egiten duten langileak dira. 2005. urtera arte honako hau izan da K2000rako behar egin duten itzultzaile-egokitzaileren kopurua:

III Taula: K2000ko itzultzaile-egokitzaileren kopurua

2003. urtera arte	2004	2005
10	5	4

Bikoiztaileei dagokienez, 2003. urtera arte hamar ziren bikoizketa-etxe honetarako lan egiten zuten bikoiztaile finkoak. 2004tik aurrera laura murriztu zen bikoiztaile finkoen kopurua. 2003. urtera arte hogeita bost bat ziren aldizkako bikoiztaileak; 2004tik aurrera hamabi baino ez.

Azken bost urte hauetan euskarara itzuli-egokitu eta bikoiztu dituzten tituluen artean hauek nabarmenduko ditugu:

- **Filmak:** *Azken tangoa Parisen (Last Tango in Paris)*, Bernardo Bertolucci, 1972), *Azken enperadorea (The Last Emperor)*, Bernardo Bertolucci, 1987), *Etsaia ohe-lagun (Sleeping with the Enemy)*, Joseph Ruben, 1991), *Hamahiru egun (Thirteen Days)*, Roger Donaldson, 2000), *Ilargia zuzenean (The Dish)*, Rob Stich, 2000).
- **Marrazki bizidunak eta telesailak:** *Berebiziko espioiak (Totally Spies)*, Vincent Chalvon-Demersay, 2001), *Marko (Marko)*, *Mr. Bean (John Birkin)*, 1989), *Erroma (Rome)*, *Fantomette (Fantômette)*, Christiane Hudrisier, 1983).
- **Dokumentalak:** *National Geographic*eko hainbat atal, *Lendakari*, *Animalien sekretuak (Wild Secrets)*.

3. EDERTRACK

Edertrack ikus-entzunezko produkzio-etxea 1985. urtean sortu zen Galdakaoko K2000 enpresan gertatutako zatiketaren ondorioz. Gaur egun Bilboko Sabino Arana kalean du egoitza.

Bikoizketa-etxe honetako jarduera nagusiak hauek dira: bikoizketa eta postproduzioa (bideo eta audio edizioa, grabaketa eta soinu jartzea).

Edertrack-ek 2000 eta 2004 bitartean urtean bikoiztu zituen orduen batez besteko kopurua 231koa izan zen.

Itzultzaile-egokitzailen finko eta aldizka-koak hamar dira. Bikoiztaileei dagokionez, 2004. urtean berrogeita hamaika bikoiztailek egin zuten lan bikoizketa-etxe honetan.

Aztertzen ari garen garaian Edertrack-ek itzuli-egokitu eta bikoiztu dituen titulu guztien artean honako hauek aipatuko ditugu:

- **Filmak:** *Bend It Like Beckham* (Gurinder Chadha, 2002), *American History X* (Tony Kaye, 1998), *La lengua de las mariposas* (José Luis Cuerda, 1999), *Bailame el Agua* (Josetxo San Mateo, 2000), *El Bola* (Achero Mañas, 2001), *Mi Dulce* (Jesús Mora, 2001).
- **Telesailak:** *Sheena* (Douglas Schwartz, 2000), *Queer as folk* (Russell T. Davies, 2000), *The Lost World* (Codin Budds, 1999)
- **Marrazki bizidunak:** *Doremi (Oja majô doremi)*, Takuya Igarashi, 1999), *Rocket Power* (Arlene Klasky, 1999), *Cat and dogs*.

7. Etorrizunari begira

Ezbairik gabe Euskal Telebista izan da euskarazko ikus-entzunezko itzulpenaren bezerorik handiena eta badirudi aurrerantzean ere hala izango dela euskarak zinema pantailetan nahiz multimediatu produktu-etan duen presentzia handiagotzen ez badu.

Nazioarteko merkatuan ikus-entzunezko produktuen eskariak nahiz eskaintzek gora egin dute nabarmen. Halere, euskarak DVD bezalako aurrerapen teknologikoetan edo multimediatu produktu-etan duen presentzia, ingelesarenarekin eta gaztelaniarekin alderatuz gerotan, hutsaren hurrengoa da ia. Diaz Cintasek adierazten duen bezala, “el cine y el mundo audiovisual en una acepción más general, es una industria eco-

nómica [...]” (2003: 19). Baieztapen horrek agerian uzten du ikus-entzunezko produktuen eskaria merkatuko legeen mende-an dagoela. Euskararen kasuan eskari hori oso urria da eta arrazoi horregatik edozein produkzio-etxeri bideraezina zaio euskarara bikoizturiko programak merkaturatzea, non eta diru-laguntzaren bat jasotzen ez duen instituzio publikoen aldetik.

Euskarazko ikus-entzunezko merkatua ezin aritu daiteke lehian gaztelaniazko merkatuarekin, gaztelaniazkoak ikus-entzule kopuru askoz handiagoa duelako batetik eta zine industria oso indartsua duelako bestetik. Egoera horren ondorioz zineman zein DVDn gertatzen diren estreinaldi guztiak gaztelaniaz iristen zaizkio ikus-entzulego euskaldunari. Gainera, estreinaldi horietako gehienak inoiz ez dira euskarara bikoiztuko. Beraz, arlo honetan ere euskara defizit egoera batean kausitzen da, gainditzen oso zaila dena. Ikuslego euskalduna gaztelaniara bikoizturiko zinemarekin ohiturik dago, baina ez ordea euskarara bikoizturikoarekin, oso gutxitan izan baitu aukera zinema euskaraz ikusteko (gainera, aukera hori egon denean, erantzuna oso eskasa izan da). Horregatik errazago eta aldi berean erosoago zaio film bat gaztelaniaz ikustea. Behar bada arrazoi horregatik gaur egun zineman euskaraz estreinatzen diren film ia guztiak haur eta gazteei zuzenduta daude.

Defizit horri nolabait ere aurre egiteko Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak euskaraz bikoiztu edo azpidatzitako filmen estreinaldiak edo merkataritza-zirkuituetan euskaraz bikoiztu edo azpidatzitako DVD edo bideo formatuko produkzio zinematografikoak sustatzeko diru-laguntzak ematen ditu. Diru-laguntza horien bidez Euskadiko zine-

areto komertzialetan euskarazko filmen eskaintza eta ikus-entzunezko produktuak euskaraz bideo eta DVDtan izatea bultzatu nahi da. Filmei dagokien diru-laguntza jaso ahal izateko euskaraz bikoizturiko filma gaztelaniazko bertsioarekin batera estreinatu behar da.

Kultura Saileko datuen arabera, diru-laguntza horiei esker bederatzi film estreinatu ziren euskaraz zinema-zirkuituan 2003. urtean; bideo eta DVD alorrean, berriz, hamahiru izan ziren merkaturatu ziren titulu berriak.

Espainiako Gobernuak dekretu bidez ezartzen baldin badu zinema-estreinaldi guztiak gaztelaniaz ez ezik euskaraz, galegoz eta katalanez ere bikoizteko beharra, ez dago dudarik aurrera pauso handia izango litzatekeela euskararen normalizazio kultural eta linguistikoarentzat. Orobat, halako neurri batek lan eta diru iturri garrantzitsusak ekarriko lizkieke arlo honetan diharduten enpresei.

Euskal Telebistara atzera ere etorritz, etxe barruko produkzioak –kirol emanaldiek ere barne– duen indarraren aldean, esanguratsua da oso zinemak ETB-1en duen presentzia eskasa¹⁰. Gaur egun marrazki bizidunek eta, neurri apalagoan, dokumentalek osatzen dute Euskal Telebistaren kanpo produkzioaren eskaintza ia bakarra. Datu horrek bi datu uzten ditu agerian: batetik, filmak eta telesailak ikusi nahi dituen ikusle euskaldunak beste kate batzuetan ikusi beharko ditu, ETB-1ek asteen zehar bat ere eskaintzen ez diolako –Euskal Telebistak igandeetan baino ez ditu filmak ematen–; eta, bestetik, gehienbat marrazki bizidunen itzulpenetik eta bikoizketatik bizi dira

egun lanbide honetan aritzen diren profesionalak.

Epe motzean ez dirudi Euskal Telebistako programazio erdua aldatzeko asmorik dagoenik. Halere, uste dut ETB-1ek film eta telesail gehiago eman beharko lukeela. Aldaketa hori, bestalde, ez litzateke barne produkzioaren kaltetan gertatuko, askotan Euskal Telebistak ezin sinetsizko moduko programak ematen baititu (gogoan ditut noizean behin eskaintzen dizkiguten korrido mexikar bikainak), eta beste batzuetan programazioa betetze aldera marrazki bizi-dunak kupidarik gabe eskaintzen dizkigute, are *prime time* barruan ere¹¹.

Horiek horrela, oraindik euskarazko ikus-entzunezko itzulpena ez da denok nahi genukeen normaltasun mailara iritsi eta bide luzea geratzen zaio horraino heldu arte. ETBko programazio erdua aldatzeak, film eta telesail gehiago emitituz, biziki lagunduko lioke. Filmen estreinaldiak zine-man zein DVD formatuan euskaraz ere

bikoiztu ahal izateko diru-laguntzak mantentzea noraezeko zaio euskara bezalako hizkuntza gutxitu bati, diru-laguntzarik gabe inongo enpresak ez baliokete aurre egingo film bat euskaraz bikoizteari.

Bukatzeko bi hitz baino ez ikus-entzunezko ikerketaren arloari buruz. Hasieran esan dudan bezala, euskarazko ikus-entzunezko itzulpena arlo guztiz jorratu gabea dugu oraindik ere. Uste dut, halere, itzulpen mota hau oso erakargarria gerta dakiekeela ikus-entzunezko itzulpenaren munda hurbiltzen diren guztiei. Ikerketa-bide guztiak zabalik daude arlo honetan lan egiten nahi duten ikasle eta ikerlarientzat, baina beharrezkoa da aurrerantzean burutzen diren ikerlan guztiek benetako praktika profesionalean oinarri izatea.

Espero dezagun etorkizun ez oso luzean ikus-entzunezko itzulpenarekin loturiko beste ikerlan batzuek ere argia ikustea eta lan honek, bere apalean, etorriko diren ikerlanen akuilu izateko balio izatea.

10. 2005-07-14tik 19ra bitartean ETB-2k 12 film emango ditu; ETB-1ek, berriz, bat besterik ez. Telesailei dagokienez, ETB-1ek ez du bakar bat ere ematen; ETB-2k, besteak beste, honako hauek: “Stargate”, “Se ha escrito un crimen”, “La ley de la bahía”, “Pacific blue” eta “Doctoras de Filadelfia”.

11. Shin Chan gaixoa igande gaueko 21:00etan eman izan dute 2005eko uztailean zehar.

BIBLIOGRAFIA

- AGOST, R. y CHAUME, F. (2001): *La traducción en los medios audiovisuales*. Castellon: Universitat Jaume I.
- ARANA, E. et al (1999): «ETB-1en Eskaintza», *Euskonews and Media, Eusko Ikaskuntza* [sarean], 23 zk., <<http://www.euskonews.com>>.
- ARANA, E. et al (1999): «ETB-1 ispiluan: programazioa eta edukia», *Zer* [sarean], 7. zk., <<http://www.ehu.es/zer/zer7/arana77.html>>.
- ARANA, E. et al (2003): «Local television stations, Basque and minority language normalization», *I Mercator International Symposium on Minority Languages and Research* [sarean], <http://www.aber.ac.uk/~merwww/english/events/mercSym_03-04-08.htm>.
- ARANGUREN, T. (1997): «Telebista eta bikoizketa», *Jakin*, 99. zk., 65-70.
- BARAMBONES, J. (2005): «Euskarara bikoizten diren ikus-entzunezko telebista-produktuak: ikerketa esparru landu gabea», R. Merino et al (ed.), *Trasvases culturales: Literatura, cine, traducción*. Bilbo: Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea, 323-327.
- BARAMBONES, J. (2005b): «Catálogo de productos audiovisuales traducidos y doblados al euskera para ETB: 1983-1992». Ikerkuntza gaitasuneko ikerlan argitaragabea.
- CEPEDA, J. S. (1987): «E.T.B. y normalización lingüística (apuntes para una reflexión)», *Cuadernos de Alzate* 5, 5-23.
- CHAUME, F. (2004): *Cine y traducción*. Madril: Cátedra («Signo e Imagen» bilduma).
- DÍAZ CINTAS, J. (2003): *Teoría y práctica de la subtitulación. Inglés-Español*. Bartzelona: Ariel (Ariel Cine).
- DIEZ URRESTARAZU, R. (2003): *ETB: el inicio de una nueva era*. Bilbo: Euskal Irrati Telebista.
- EGUZKITZA, J. (1997): «Telebista eta bikoizketa», *Jakin*, 99. zk., 71-77.
- ETXEBARRIA, I. (1994): «Doblaje y subtitulación en Euskal Telebista», Eguíluz, F. et al. (ed.), *Trasvases culturales: literatura, cine, traducción*. Gasteiz: Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea UPV-EHU, 191-197.
- IBAÑEZ, J. L. (1992): *La sociedad pública de televisión Euskal Telebista: orígenes y desarrollo (1982-1992)*. Bilbo: Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea UPV-EHU. Doktore-tesia.
- IBAÑEZ, J. L. y MARIN MURILLO, F. (1988): «La estructura de la programación de ETB-ETB-1: la circulación de los programas de televisión. La programación cultural», *Kobie (Serie Bellas Artes)* V, 7-27.

- IRAZU, A. (2001): *Teletilura (1999-2000). Euskal fikzioa ETBn*. Madril: Fundación Autor.
- LARRINAGA, A. (2000a) «La traducción en ETB-1», [sarean], <www.aber.ac.uk/~merwww/general/papers/mercAud_00-04-01/asier2.rtf>.
- (2000b) «La subtitulación en ETB-1», [sarean], <http://www.aber.ac.uk/mercator/general/papers/mercAud_00-04-01/asier.rtf>.
- (2003a) «Bikoizketarako irizpideak finkatzen (eta bat)», [sarean], <http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1055803983>.
- (2003b) «Bikoizketarako irizpideak finkatzen (II)», [sarean], <http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1062602150>.
- (2004a) «Bikoizketarako irizpideak finkatzen (III)», [sarean], <http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1074012486>.
- (2004b) «Bikoizketarako irizpideak finkatzen (IV)», [sarean], <http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1083278134>.
- (2004c) «Bikoizketarako irizpideak finkatzen (V)», [sarean], <http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1119962767>.
- Herri Kontuen Euskal Epaitegia (2002): «Informe de fiscalización. Contratación de obras, servicios, suministros y de personal del grupo EITB en el ejercicio 1998». 2002-07-19, 23-24.
- TORREALDAY, J. M. (1985): *Euskal Telebista eta Euskara*. Donostia: Elkar.
- UNZURRUNZAGA, I. (1995): «Pour la récupération de la langue de tous les basques: la télévision basque». *Translatio, Nouvelles de la FIT-FIT Newsletter, Nouvelle série XIV (3-4)*, 321-325.
- ZABALETA, I. (1988): «Estructura de la programación e importación de programas de la Televisión Vasca-ETB, 1988», *AIERIko Nazioarteko XVI Kongresuko aktak. Comunicacio Social e Identitat Cultural*. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Informazio Zientzi-etako Fakultatea, 408-424.
- ZABALONDO, B. (2005): «Bikoizketa euskaraz», R. Merino et al (ed.), *Trasvases culturales: Literatura, cine, traducción*. Bilbo: Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea, 297-305.
- ZUBIZARRETA, I. (1997): «Telebista eta bikoizketa», *Jakin*, 99. zk., 78-84.